

HEZIERA, KEZKAREN ETA ITXAROPENAREN BIDEGURUTZEAN

Idazleak paper zuriaren aurrean izan ohi duen norgehiagokako honetan murgiltzen naiz ni ere noizbehinka. Lehenengo zirrimarrak taiutu ezinik, zalantzaz, ideia lanbrotu, nahasi eta saltari artean noraezean dihardula, garai hauetan ia ezinbestekoa den gai bati heldu nahi diot: hezierari. Eta izenburuan adierazi bezala, heziera kezka eta itxaropenaren bidegurutzen ikusi ohi dugu.

Leihoaren pare-parcan hurren jolascko algarra, baloiaren airetiko joan-etorria, ahots ozen freskoak, pentsatu gabe jolasari berez-berez darizkionak somatzen ditut. Hiribarreneko auzo bat da, orain dela 15-18 urte eraikitako etxe berriz hornitutakoa. Ibai ertzeko ibarrean eta mendi magalean poliki kokatzen den inguru paregabea. Biztanle ugariaren eta batez ere haur multzo handiaren egoitza izatearen bizitasun, mugida eta lilura du, mendi magaleko harrobien harri-hots lakarra azpi-doinutzat dela. Beste auzo, kale nahiz baserri ingurutan ere haurrak berdintsu bilduko dira udako egunei, geratzen diren oporhondarrei onentxoena atera eta jolasari ekiteko. Bien bitartean ikastola eta eskola mutu, isilik, hormabarru huts, eraikuntza erraldoi; jolas-tokia alfer, handi, zabal, porlantsua; ikuskizunik ez bizitasunik gabea... Baina ez luzaroko. Aldizkari hau zuen eskuetara orduko, betiko abidan joango da ikasturtea.

Guraso eta irakasleek garai honetan izan ohi dituzten sentimendu, kezka eta pentsakizunen lekuko izan nahi nuke. Esperimentuz, irakurriz, entzunez, nabarituz nahiz somatuz jaso ditudan ideia solte nahasiak ahalbait egokien tolestu, bildu, harian jarri eta eho.

Hezieraren helburuak

Norantz doa gure eskola? Zer du jomuga? Zer da hezieran lortu nahi dena? Nor da azken batez auzi honetan azken hitza,



erabakikorra duena? Galderak eta galderak datozkigu multzoka eta bultzaka argi eske, baina erantzunak urri eta nekez. Eragin eta indar ezberdinak daude hor jokoan eta zurrunbilo horren erdian haurra, gaztea orainaren eta geroaren bidegurutzan. Baikor izan nahiz ezkor izan, auzi hau dena eginda, konponduta, bare-bare dagoela uste izango duen inozorik ez da izango. Haurra geroa erabakitzen, itsas erdian harahonaka er-

bilia den txaluparen antzera kontrako haizeen afontupean dabilela sinestea ere gehiegi izango da, agian; arazoa beltzegi ikustea. Baina hezieraren protagonista haurra bera dela ahobetean eta harro-harro aitortu arren, gehien bat hartzaile ez ote da gero? Hartzaile bai, eta noren hartzaile? Heziera, eskola barruko ekin-tzetara bakarrik ez dela mugatzen argi eta garbi dago.


Eskola, gaur egun inoiz baino gutxiago, ez da bere baitan kiribildurik, isolaturik, gizartearekin harremanik gabe dagoen erakundea. Hezieraren partaideak haurra bera, irakaslea eta eskola, familia eta gizartea dira. Hauen eraginek norabide ezberdina izan dezakete. Bakoitzak bere uste, eritzi eta ideologiaren arabera moldatu nahi izango du haurraren geroa eta ikuspuntu nahiz helburu ezberdinez ekingo dio hezierari. Nahaste eta ezadostasun horren ondorioa heziera barik deseziara izan daiteke, gizaki heldugabeak (haurrak) noraezean eta eragin gaiztoen pean bertan behera utziz...

Hezieraren helburutzat zera hartu ohi da: gizartera moldatzea, egokitzea; gizartearen onerako biharko gizon eta emakume baliokoak sortzea. Gizartera egokitu; haren sistemaren barruan ondo ibili eta funtziona dezan baliabideak eskaini. Horrela gizarteari begira dago dena taiutua; haren osotasun barnean egokituriko atal izatera; gizartean nabarmenki edo gaizki ez dezala eman. Haurra txikia, molderraza den bitartean, inoren eskutan eta heldu gabe dagoen bitartean, gizartearen arabera moldatuko dute; honen ustekak, ideiak, kezkek markatuko dizkiote ariman. Haurra txiki-txikitarik, bere askatasunez baliatzeko gai ez denean, bere bizitzaren norabideaz erabakirik hartzerik ez duenean, inoren menpe eta eraginpean egotea besterik ez dagokionean, guztiz baldintzatua, markatua eta harrapatua da gizartearen aldetik. Bere burua ezin babestu izango du, azken batez haren gurasoak, etxeko guztiak, eskola eta irakasleak ere gizartez mugatuak, markatuak eta kutsatuak baitaude.

Hor dugu, bada, haurra irteera gabeko edo irteera gaitzeko zurrunbiloan. Gizartea dena irensteko, dena asimilatzeke gertu dagoen erraldoi bat bezala da. Eginda dago eta eten gabe osotuz, haundituz, sendotuz doa. Geuk osotzen dugu eta era berean gizarteak taiutzen gaitu bere moldera; haurrak, berriz, bizitzara ireki orduko «irensten» ditu. Askatasunik eskaintzen ez duena, hain molde estua eskaintzen duena, ezin onartu hezieraren helburutzat. Horrek etsipenera garamatza, ez baitu haurrari begira eta beronen onerako lan egiten, gizarteari begira baizik.

Irakasleak ikasleei irakas diezaiekeen guztia ez al da irakur-

tzen, idazten, kontuak ateratzen, marrazkiak egiten, datoak gogoratzen? Irakaslearen egitekoa ez al da ikasleei gertakarien berri eta haietaz diren kritziak ematea? Ez, hori guzti hori egin beharra badago ere, hezierarekin ez du horrek zer-ikusi handirik. Gizartera moldatzeko bidea horixe da, hain zuzen; baina hori irakaskuntza da, ez heziera. Krishnamurti indiar pentsalari eta pedagogoak dioenez, hezieraren ohizko helburu hori guztiz kaltegarria da eta zeharo baztertu beharrekoa. Pentsalari honek erabateko aldakuntza, iraultza sakon bat aurkezten digu. Honen arabera, mundu berrian bizi izateko teknologi gaitasun aberats eta ziurrez jazten lagundu behar zaio haurrari, baina batez ere gizaki oso legez bizitzara ireki eta loratu dadin beharrezko giroa sortzea da hezieraren helbururik behinena. Honek zera esan nahi



du: gizakiekin gauzekin eta ideiekin, bizitza osoarekin erlazio egokia izan dezan ontasunez eta gizatasunez gauzatzen da. Harremanik gabe hilda bezala dago gizakia. Ederra dastatzeko gaitasunik ez duenak, izadiaren, artearen, musikaren eta estetikaren miresmena pizteko arima sor duenak ezin du inorekin ez ezerekin harreman egokirik izan.

Gizarteak lehiaketara, norgehiagokara eragin ohi dio haurrari; etsipena, larridura, kezka, beldurra sortuko dizkioten ideiez

nahazpilduko diote burua: ikasketetan besteak baino hobeto ibiltzea, ikasmilak bikainki gaınditzea, goimailako lanpostua, dirua irabaztea... bidea oztopatzen dion guztia zapaltzea, deuseztea. Haundikeriaz, amorruez, bekaitzez, tensioz eta agresibitatez hornitzen dira horrela gizakiak. Hortik hondamendia, porrota eta zorigaitza baino ezin etorri.

Askatasuna eta diziplina

Askatasuna eta ordena edo diziplina bateraezinak direla dirudi; bataren sendotzeak, finkatzeak bestearen ahultzea, ukapena dakarrela. Baina askatasuna eta diziplina ongi ulertuz gero, ez




dago horrelakorik. Alderantziz: bata eta bestea behar-beharrezkoak, elkarren osagarri dira. Benetako askatasunak diziplina, ordena, inoren eskubidekiko begirunea eskatzen du. Eta giza-diziplinarik ere ez dago askatasunik gabe. Giza-diziplina ez da goitik behera, nahita nahiez, indarrez ezarria. Hori abere-bezatzaileen egitekoa litzateke, ez giza-hezitzaileen. Ikasleak aske egon behar du, inork behartu, estutu eta beldurtu gabe. Askatasunik ez badu, ezin sentibera izan; orduan izakiekin, pertsonekin, inguruko munduarekin erlazionatzeko sor eta geldo gertatuko litzateke. Ezin ikasi derrigorrez ezarri zaiona, hura gogoko ez badu; hartan bihotza jartzen ez badu. Beraz haurrari, ikasleari aske izaten lagundu behar zaio; baina aske izateak diziplina, ordena dakar berekin; ez nahi dena egitea; ez, esan ohi den bezala, Jainkorik ez lege barik jokatzea. Askatasuna eta diziplina biak batera datoz. Hala ere

heziera lanean, hurrekin dihardugunean, eguneroko praktikan ez da erraza gertatzen elkarren osagarri izan behar luketen bi gauza hauek egokitzea, batera lantzea. Askatasuna nahiz diziiplina gaizki ulertzen direlako; gizartean hauen ideia faltsu eta guztiz kaltegarria aldarrikatzen delako da hori. Hari-mutur bati tira eginda bezala, honek gure artean ohizkoa den jokaera aztertzeraz garmatza.

Zigor eta sariak

Krishnamurti indiar pentsalariaren eritziz, sari eta zigortara jotzea guztiz kaltegarria da. Askatasuna eta diziiplina batera badoaz, zertarako sari eta zigorrak?

Nola lagundu haurrari berarengan askatasuna eta ordena, biak batera eta elkarren osagarri legez loratu daitezten? Ez zigorrez, beldurrez, sariz, ebaluaketa sistemaz; ezta haurren artean mailaketak, bereizketak markatuz: lehenengo, bigarren, hiruga-



ren... Hauek norgehiagokako gizartearen emaitz eta ezaugarri dira. Krishnamurti-ren eritziz, hauek ez dute askatasunik, bizipozik sortzen; elkarren lehia, haundikeria, bekaitza eta azken batez

etsipena eta zorigaitza baizik. Baina horretan hurrek eta irakasleek arazo berbera dute: askatasuna eta ordena, bata bestea bezain beharrezkoa dela ulertu eta onartzea ez da zaila. Baina bata finkatu ahala, bestea ez dela gutxitzen, alderantziz baizik; biak batera doazela; bata bestea ukatu ezezik suposatu egiten duela sinestea, baina sinestu ez ideia maila hutsean, komentzimendu sakon horrek egintzetara eragin arte baizik... hori zaila da Krishnamurti-k pentsamoldea, gai honetaz, zeharo aldatzea eskatzen die irakasle eta hezitzaileei. Gero zera gaineratzen du: «Zu aske zarela eta askatasuna zer den sakon-sakonetik ulertzen duzula, ordenatua izango zara eta eskolara garaiz helduko. Askatasun hori abiapuntutzat duzula hitz egingo diozu ikasleari eta ez ideia huts baten ikuspegitik. Ikasleak aske eta, beraz, diziplinatua izan behar duela esateko bide ezberdinak daude. Hori ideia edo formula bidez esan ala egintza bidez esan, alde ederra dago! Zu, maisu bezala, aske eta ordenatua bazara, berez-berez iristen zaio mezu hori ikasleari, hitzez esanda baino zuzenago, sakonago iritsi ere.

Ikaslearen porrota

Asko hitz egiten da batez ere ikasturtea amaitzean dagoenean, behar litzatekeen mailara heltzeko arazoak eta ezina agertzen dituzten ikasleek. Ikaslearen porrota da irakasle eta gurasoen kezka larrienetariko bat; haien eta hauen arteko harremanak zartzatzen dituenetariko zioa. Baina hori bakarrik eta berez ez da etortzen. Sustraiak, axalean nahiz sakonean, agerian nahiz ezkutuak, baina han izango du, gertakari guztiek beren zergatia baitute. Eta ia beti beste arazo eta baldintza gaizto batzuren lagun etorriko da.

Indiar pentsalari honek eta beronen kidekoek, heziera bere helburu nahiz egintzetan bertan ere gaizki bideraturik, zeharo oker taiuturik dagoelako dela porrot hau esango digute. Baina zein da konponbidea? Heziera arazoak hor egongo dira beti leunago edo gordinago. Ikaslearen porrotik gehiago ez dela gertatuko ziurta dezakeen sorginkeriarik oraindik ez da asmatu, ezta asmatuko ere. Baina Krishnamurti eta kidekoen irakur-

ketak asko lagun dezake giza-pentsaera eta portaeraren nondik norakoak hobeto ezagutzeko eta eguneroko heziera lanean ikuspegi berriz, ikuspegi gizatiarragoz jokatzeko.

Ikasleen porrotak axalako nahiz sakoneko sustraiak izan ditzakeela adierazi dugu gorago; ezkutukoak nahiz agerikoak. Gehienetan ezkutukoak. Porrota, bakarrik ez dela etortzen. Porrotaren inguruan ia beti afektibitate eza agertzen da. Afektibitate, elkarriketa, gizatasuna gizakiak, eta bereziki haurrak,



behar-behar dituen baldintzak dira. Etxekoen ardurarik eza eta irakaslearen desegokitasuna ere izan daitezke porrotaren zioak. Etxekoen ardurarik eza era askotakoa izan daiteke: zeharo lanpeturik, gehiago ezinean eta beste ezertara heldu ezinik daudelako; edo eta kultura gutxikoak izanik, seme-alabei lagundu ezin dietelako, irakaslearekin gai horietaz iharduten lotsa direlako, beren buruak horretarako jantzi gabe eta trakets somatzen dituztelako. Haurrak curak buru txarrekoak, ikasteko gaitasunik gabeak direlako berez? Honelako kasuak ere izan daitezke, baina oso urri. Eskatu ohi den gutxieneko maila gainditu ezinik ez du izaten baldintza egokietan hazia den haur normalak. Lehiaketa giroan,

beste lagun batzurekin konparatua izanik, konplexuak, beldurak sorterazi dizkiotelako ere izan ditzake haurrak arazoak bere ikasketetan. Baita ahal duen baino gehiago nahiz gutxiago eskatzen diotelako ere. Hala ere afektibitate eza izan ohi da gehienetan porrotera daraman gaitza. Beraz, etxean nahiz lagunartean onartua ez den haurra, giro arrotz eta aurkako horretan bizi dena izaten da ia beti porrot egingo duena bere ikasketetan. Arago oraindik, irteera gaitzeko zurrunbiloan sar daiteke: afektibitate ezagatik porrot egiten du eta gainera portaera txarrez, agresibitatez eta hezigaitz azaltzen da gurasoen eta ikasleen aurrean. Orduan hauek lehen baino afektibitate gutxiagoz, esku gogorrez eta zigorrez erantzungo diote. Bere ondoezaren zama agresibitatez hustuko du ikaskideen aurrean eta hauek ere ez diote barkatuko... ez da onartua izango. Horrela, elur bola bezala, porrotaren mamu hori beldurgarriro handituz joango zaio. Zurrunbilo edo zirkulu gaitz hori maitasunez, abegi onez, gizatasunez hautsi behar zaio edo hausten lagundu.

Porrotaren sustraia, kasu bakoitzean, zein den aztertu behar da lehenengo. Zerk eragiten duen. Lagunekin, irakaslearekin gustora aurkitzen den ala ez; irakaslearekin fidakorra, irekia ala beldurtia, izukorra den. Etxean afektibitate giro egokia duen. Edozein modutan ere, eurci dagokien aldetik, zintzoak, zuzenak, egizaleak eta gizatasun handikoak izan behar dute guraso eta irakasleek. Beti alde ona azpimarkatu. Izadiaren eta gizakiaren ontasunaren ispilu izan; maitasunaren ederra dasta dezatela. Egiten duen hura, bere lana eta abar maitatzen, bere eginbeharra gogotsu eta askatasunez egiten irakatsi.

Haur mordotxo bat nire leihorean pare-parean, euskara bizi-bizi eta freskoan ozenki jolasten ari zirela, herenegun hasi nintzen hezierari buruzko pentsakizun hauek nola-hala zirrimarratzen. Geroztik, hartu eta utzi, tarteka-marteka burutu eta azken lerroa idazten ari naizela, oraindik haurrek euskaraz gogor eta jator jolasten dira eta ez dago beldurrik! Zergatik hileta jotzeari ekin?

Luis Baraiazarra